

BEHIN BETIKO ERABAKIA, 2025eko MAIATZAREN 13koa, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, SICUE PROGRAMAREN 2025/2026 IKASTURTERAKO DEIALDIKO PLAZEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA ARGITARATZEKO.

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen 2025eko urtarrilaren 22ko Erabakiaren bidez, Espainiako Unibertsitateen arteko Trukerako SICUE programaren 2025/2026 ikasturterako deialdia argitaratu zen.

Deialdian 2025eko otsailaren 28ra arteko epea ezarri zen eskariak aurkezteko.

Epea amaituta, plazak esleitu ziren deialdian zehaztutako irizpideen arabera, eta aukeratutako ikasleen behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, apirilaren 8ko behin-behineko erabakiaren eranskinean.

Legeari ezarritako epea amaituta eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, orain erabaki hau ematea dagokigu.

Horregatik guztiatik, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Plazak behi betiko esleitzea, argitaratuta dauden irizpideen arabera, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleei. Ikus I. eranskina: onartutako eskabideen zerrenda.

BIGARRENA.- Deialdian parte hartzeko baldintzak bete arren, plazarik eskuratu ez duten ikasleen behin betiko zerrenda egitea, merezimenduen arabera hurrenkeran, ukorik egongo balitz, plaza eskura dezaten. Ikus II. eranskina: plazarik gabeko eskabideen zerrenda.

HIRUGARRENA.- Baztertzea deialdiko baldintzak edo deialdian parte hartzen duten unibertsitateek ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak. Baztertutako zerrendak III. eta IV. eranskinetan daude (III. eranskina: araudiaren arabera baztertutako eskabideen zerrenda; IV. eranskina: ikastetxeko koordinatzaileak baztertutako eskabideen zerrenda).

LAUGARRENA.- Baztertutako eskariak ez onartzeko arrazoi zehatzen taula argitaratzea. Ikus V. eranskina: eskabideak baztertzeko arrazoiak.

BOSGARRENA.- ERABAKIAREN AURKA EGITEKO ERAK

Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta bere kontra gorako errekurtsua aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari (EISBA) hilabeteko epean, berau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horrek ezertan eragotzi gabe beste edozein errekurtsu jartzea.

Gorako errekurtsua jarri denetik hiru hilabete igaro badira unibertsitateak erabakirik jakinarazi gabe, administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da, eta orduan administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Leioa, 2025eko maiatzaren 13a

Sin./Fdo. M. Gotzone Barandika Argoitia
TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE TRANSFERENCIA E INTERNACIONALIZACIÓN